

PROBA ESPEZIFIKOA

201(ko PROBA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2014ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2015

**HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA**

Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete
Erantzun zortzi ariketa hauetako lauri
(Galdera bakoitzak 2,5 puntu balio du)

1. Irakur ezazu arretaz zerrendatxoa, eta identifika ezazu zein baieztapen datozen bat sofisten filosofiarekin eta zein, berriz, Sokratesen filosofiarekin; egin ezazu iruzkin bat haien edukari buruz, eta azter itzazu haien arteko aldeak:

- Ezagutu zeure burua.
- Errealitatea ikusten dena besterik ez da.
- Egia existituko balitz, ezingo genuke ezagutu.

2. Irakur ezazu arretaz testu hau, eta azaldu itzazu hartan azpimarratuta ageri diren terminoak:

Haitzuloaren mitoa

"Hauxe da, hain zuzen ere, Glaukon maitea, gure izatearen irudia. Lurpeko haitzuloa da ageriko mundua. Haitzuloa argitzen duen sua eguzkiaren argia da. Goiko eskualdera igo eta bertako mirariak ikusten dituen preso hau arima da, mundu ulergarrira igotzen dena. Horixe uste dut nik, jakin nahi duzunez; Jainkoak bakarrik daki hori egia den. Dena dela, nik uste dut mundu ulergarriaren azken mugetan ongiaren ideia dagoela; zaila da ideia hori hautematea, baina ikusi eta ondorioztatzen dugu berori dela ederra eta ona den guztiaren arrazoia. Ideia horrek sortzen dituela, ikusten dugun munduan, argia eta argi horren jatorri den izarra. Ideia horrek sortzen dituela, halaber, mundu ulergarrian, egia eta adimena. Eta, azkenik, ideia horretan finko mantendu behar direla begiak jakituriaz bideratzeko, hala bizitza pribatuan nola publikoan. Nik ere horrela ikusten dut, esan zuen, hainbestearino non jarraitu baitzaitzaket. [. . .]"

(Errepublikak VII; 514a_517c eta 518b_d. Gaztelaniazko testu honetatik euskaratua: R. Verneaux, *Textos de los grandes filósofos*. Edad antigua, Herder, Bartzelona 1982, 26-30 or.)

3. Ados egongo zinateke tesi edo baieztapen hauekin?
Oinarritu eta arrazoitu erantzunak.

- a) Erdi Aroa kultura anitzeko milurteko bat da.
- b) Gai nagusietako bat arrazoiaren eta fedearen arteko harremanak izan zen.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2014ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2015

**HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA**

4. Adieraz ezazu ondoren ematen diren ezaugarrietatik zein egokitzen den eta zein ez eta zergatik (zuzenak edo okerrak diren) "pentsatzen dut; beraz, banaiz" Descartesen printzipio ospetsuaren esanahira:

- Lehenik, pentsamendua jasotzen da, eta, gero, existentzia.
- Pentsamendua eta existentzia batera jasotzen dira.
- Filosofia kartesiarraren lehen printzipioa da.

5. Erantzun *Arrazoimen Hutsaren Kritikari* buruzko galdera hauei:

- Zer galderari erantzun nahi dio Kantek *Arrazoimen Hutsaren Kritikarekin*?
- Erantzun ea proposizio hauek egia ala gezurra diren:

- Estetikan, Kantek fisika zientziazat hartzeko aukera aztertzen du.
- Dialektikan, Kantek metafisika zientziazat har daitekeen aztertzen du.
- Analitikan, Kantek matematika zientziazat hartzeko aukera aztertzen du.

6. Azaldu ezazu alienazio hitzaren esanahia, eta aipa eta azaldu itzazu, eskematikoki, Marxek bereizten dituen alienazio motak.

7. Beheko enuntziatuek Nietzscheren filosofiaren etengabeko itzuleraren teoriari egiten diote erreferentzia. Esan ezazu egia ala gezurra diren:

- Etengabeko itzuleraren teoria kexa bat da, denbora lerro batean irudikatzearen aurkako kexa bat.
- Etengabeko itzuleraren teoriari esker, borondateak iragana nahi izatea gerta daiteke.
- Etengabeko itzuleraren ideia ezkorra da, funtsean.
- Etengabeko itzulerak "bai" esaten die biziari eta botere-nahia agertzen duen munduari.

8. Azpiko hauek zientziaren eta etikaren ezaugarriei buruzko adierazpenak dira, Wittgensteinen arabera. Esan ezazu egia ala gezurra diren:

- Etikak gertakariak deskribatzen ditu.
- Zientzia-judizioak balio-judizioak dira.
- Zientzia munduari dagokio.
- Etika subjektuari dagokio.



ORIENTABIDE GISAKO EBAZPENA

1. Erantzuna

Ezagutu zeure burua. Sokrates: Sokratesen filosofiak barnealdera joateko egiten duen gonbidapen da. Dagoeneko, helburu nagusia ez da unibertsoa edo natura ezagutzea, baizik eta nork bere burua ezagutzea.

Errealitatea ikusten dena besterik ez da. Sofistak: Sofistek "izatea" eta "zerbaiten irudia ematea" nahasten dituzte. "Hala da, hala iruditzen baldin bazaizue". "Errealitatea ikusten dena besterik ez da". Erlatibismoaren ondorio bat da. Adierazpen horren aurrez aurre daude Sokrates eta Platon, haientzat itxurek engainatu egiten baitute; beraz, gauzen esentziara iritsi beharra dago, gauzak "benetan diren" horretara, gauzak "diruditen" horri aurre egiteko. Platonen haitzuloaren mito ospetsuak tesi hori baieztatzen du, hain zuzen ere: itxuren itzalez haraindi, ideien benetako errealitatea dago.

Egia existituko balitz, ezingo genuke ezagutu. Sofistak: Gorgias sofistaren eszeptizismoaren printzipioetako bat da. Gizakiaren ulermenak egia ezagutu ahal izateko duen ezintasunari edo mugari egiten dio erreferentzia.

2. Erantzuna

Arima: Arima, Platonentzat, ideien egoitza da, benetako ezagutzaren protagonista da. Zentzumenen kateen bitartez, gorputza mundu ikusgaiaren itxuraren itzalera gelditzen da loturik. Arima soilik igo daiteke benetako mundura, errealitatearen edo ideien mundura.

Mundu ulergarria: Benetako mundua da. Errealitatearen eta argiaren mundua da, mundu sentikorra ez bezala, azken hori itxuraren eta itzalaren mundua baita. Azken batean, ideien mundua da, errealitatearen mundua, benetako mundua.

Ongiaren ideia: mundu ulergarriari dagokio, eta ez da ezagutza sentikorraren bitartez ezagutzen, baizik eta dialektikaren bitartez. Ongiaren ideia ezagutzea eguzkiari aurrez aurre begiratzea da, haitzuloaren iluntasunetik urrunduta eta zentzumenen kateetatik askatuta. Ongiaren ideiarekin, gainerako ideia guztiak ezagut ditzakegu.

3. Erantzuna

a) Erdi Aroa kultura anitzeko milurteko bat da: Erabat ados. Erdi Aroan, elkarrekin bizi izan ziren juduak, arabiarak eta kristauak. Erromatar Inperioa erori zenean, kultura ezberdinak eta askotariko filosofiak azaldu ziren: filosofia



kristaua edo eskolastika, filosofia arabiarra eta filosofia judua. Toledoko itzultzaileen eskola kultura-nahasketa horren adibide garbia da. Alfontso X. Jakitunak "hiru erlijioen erregea" goitizena jarri zion bere buruari. Mezkitak, katedralak eta sinagogak kultura anitzeko puzzle horren lekuko ziren. Arabiarrek ekarri zuten, hain zuzen ere, Aristoteleren pentsamendua Mendebaldera.

b) **Gai nagusietako bat arrazoiaren eta fedearen arteko harremanak izan zen.** Erabat ados. Aniztasun horren aurrean, Erdi Aroko pentsamenduaren ardatza arrazoiaren eta fedearen arteko harremanek osatzen dute: San Agustinek, San Tomas Akinokoak eta Gilen Ockhamgoak arrazoiaren eta fedearen arteko harremanei buruz hausnartu zuten. Arrazoiaren eta fedearen arteko harremanei loturik, botere erlijiosoaren eta botere politikoaren arteko harremanaren gaia zegoen, Elizaren eta estatuaren arteko harremana, aita santuaren eta enperadorearen artekoa. Norgehiagoka horiek taxutu zuten garai hartako kulturaren tonua.

4. Erantzuna

a) **Lehenik, pentsamendua jasotzen da, eta, gero, existentzia.** "Pentsatzen dut; beraz, banaiz" esaldiaren interpretazio hori ez da zuzena. Existentzia ez da pentsamendutik ondorioztatzen.

b) **Pentsamendua eta existentzia batera jasotzen dira.** "Pentsatzen dut; beraz, banaiz" ulertzeko modu zuzena da. Pentsamendua eta existentzia, biak, batera jasotzen dira, aldi berean. Existitzen naizela ohartzen naizen une berean gertatzen da, hau da, subjektuak, pentsatzean, hautematen du existitzen ari dela. Existentzia ez da pentsamendutik ondorioztatzen, bi gauzak batera sumatzen dira.

c) **Filosofia kartesiarraren lehen printzipioa da.** "Pentsatzen dut; beraz, banaiz" egia aldaezin bat da, zalantzan jar ez daitekeena, ziurra eta nabaria den zerbait. Oinarri horretan egituratzen du Descartsek bere filosofiaren eraikin osoa. Intuizioz jasotako lehen printzipio horretatik abiatuta, Descartsek bere filosofia osoa ondorioztatuko du. Filosofia kartesiarraren oinarrizko printzipioa da.

5. Erantzuna:

a) **Zer galderari erantzun nahi dio Kantek *Arrazoimen Hutsaren Kritikarekin*? *Arrazoimen Hutsaren Kritikan*** Kantek erantzuna ematen dio Zer ezagut dezaket? galderari. Ezagutzaren gaia lantzen du, eta naturaren ezagutza zientifikoaren mugak ezartzen ditu.



b) Erantzun ea proposizio hauek egia ala gezurra diren:

- Estetikan, Kantek fisika zientziazat hartzeko aukera aztertzen du. Gezurra
- Dialektikan, Kantek metafisika zientziazat har daitekeen aztertzen du. Egia
- Analitikan, Kantek matematika zientziazat hartzeko aukera aztertzen du. Gezurra

6. Erantzuna:

Latinezko alienus-etik (besterena, beste inorena dena) eratorritako termino juridiko bat da, salmentetan edo lagapenetan erabiltzen dena. Hala, ondasun bat alienatzea eta oparitzea edo saltzea baliokideak dira, hots, norberarena dena norbaiti transmititzea. Hedaduraz, esanahi psikopatologiko batekin ere erabiltzen da alienazioa, burutik egina edo zoratuta egotearen sinonimo gisa. Alienatua, beraz, buruko gaitza duena da, adimena zatitua duena. Termino honen berezko zentzu filosofikoa «arroztasun» eta «urruntasun» hitzen esanahiari dagokio; hitz horiek subjektuak bere buruarekiko duen arroztasuna adierazten dute. Alienazio nozioaren zentzu filosofikoa Hegelek, Feuerbachek eta Marxek landu dute, batez ere.

Zenbait alienazio mota daude:

1. Alienazio erlijiosoa eta filosofikoa: erlijioa eta jainkoak gizakiak sortuak dira. Gizakiek sortu dute Jainkoa, beren beharrian eta larritasunen arabera, eta ez alderantziz. Gizateriaren ezaugarriak proiektatu dituzte Jainkoaren ideian. Prozesu horretan, azkenean, gizakiak, benetako sortzaileak, berak sortutako izakia gurtzen du: Jainkoa. Gizakiak mekanismo alienatzaile horretatik libratu behar du. Beste mundu hobe baten promesak lausotu egiten du gizartea eraldatzeko gogoia, eta onargarritzat ematen ditu mundu honetan onartezinak direnak. Hau ere esan zuen Marxek: "erlijioa herriaren opioa da". Feuerbachen iritziz, filosofia bera, funtsean, estalki filosofikopean ezkutatutako teologia bat besterik ez da.

2. Alienazio politikoa: estatu burgesari egindako kritika. Estatua gizarte zibilak sortua da. Jabetza pribatuaren erregimenean, banako guztiak herritar gisa Zuzenbidearen eta Estatuaren eremuan itxuraz berdinduta ageri dira legearen aurrean; benetan, ordea, jabetza pribatuaren erregimenak banandu egiten ditu gizakiak, elkarren aurka jarri, eta errealizatzea galarazten die. Testuinguru horretan, estatua klase menderatzailearen zerbitzura dagoen arma bat da, klase menderatua arrastoan sartuta edukitzeko erabiltzen duena.

3. Alienazio ekonomikoa. Ekonomia politikoaren kritika: gizarte kapitalistan, lanak ez du gizakia duin egiten, alderantziz baizik: desjabetu eta alienatu egiten du. Izan ere, sistema ekonomiko liberalean, lana esplotatzeko baliabide bihurtzen da. Alienazio ekonomikoa gainbalioari lotzen zaio, hots, Marxen iritziz



langile-klasea esplotatzeko oinarria den mekanismoari. Gainbalio horrek salgai bihurtzen du edozer gauza, baita gizakiaren lana ere.

7. Erantzuna:

a) **Etengabeko itzuleraren teoria kexa bat da, denbora lerro batean irudikatzearen aurkako kexa bat.** Egia. Etengabeko itzuleraren teoria kultura grekotik hartua dago. Haren bitartez, Nietzschek kontra egiten dio kristautasunak denbora lerro batean irudikatze duen jarrerari. Nietzschek arabera, lerro zuzenak gezurra dio, egia Zaratuaren eratzunean dago, zirkuluan, denboraren ikuspegi ziklikoan.

b) **Etengabeko itzuleraren teoriari esker, borondateak iragana nahi izatea gerta daiteke.** Egia. Denbora lerro batean irudikatzeak mugatu egingo luke botere-nahia: borondateak ezin du berriz ere iragana desiratu, baina, guztia errepikatzen baldin bada, berriz desiratuko da iragana. Horrenbestez, botere-nahia eta etengabeko itzulera elkarri lotuta daude.

c) **Etengabeko itzuleraren ideia ezkorra da, funtsean.** Gezurra. Baikorra da, berriz ere iragana desiratzeko aukera ematen baitigu. Gainera, Nietzsche hautapenezko etengabeko itzuleraren alde azaltzen da: itzultzen dena ez da berbera, baizik eta bikainena, dekadentea dena desagertu egiten da.

d) **Etengabeko itzulerak "bai" esaten die biziari eta botere-nahia agertzen duen munduari.** Egia. Bizitzaren eta existentziaren balioa adierazten ditu edozein dotrina ezkorren aurka; jolas kosmiko alai bat irudikatzen du, norbera onartzeko kantu bat, existentziaren bedeinkapena. Bizitzaren baieztapena da ukapen sokratiko-kristauaren aurrean.

8. Erantzuna:

a) **Etikak gertakariak deskribatzen ditu.** Gezurra. Etikak ez ditu gertakariak deskribatzen, balioak agintzen ditu. Gertakariak, objektiboa dena, zientziari dagozkio, ez etikari.

b) **Zientzia-judizioak balio-judizioak dira.** Gezurra. Zientzia-judizioak ez dira balio-judizioak; gertakizun-judizioak dira. Eta haiei buruz, esan daiteke egia ala faltsuak diren. Adibidea: Beroak metalak dilatzen ditu. Gertakari bat deskribatzen duen judizio bat da, eta baieztatu dezakegu egia dela. Nik honako hau badiot: "Eutanasia ona da" balio-judizio bat ari naiz adierazten; beraz, subjektiboa da, hau da, subjektuari dagokio, bera baita balioaren egoitza. Noski, ezin da baieztatu egia ala gezurra den, zeren eta gerta baitaiteke beste batzuek aurkakoa sinestea: "Eutanasia txarra da".



Ondorioa: zientzia-judizioek gertakariak deskribatzen dituzte. Balio-judizioak beste esparru batzuetako osagaiak dira, hala nola etikakoak, estetikakoak... hau da, mistikoa denaren esparrukoak, hitz egiteko zailak diren esparruetakoak. Eta *Tractatus* lanean aipatzen den moduan... "zerbaitez ezin bada hitz egin, hobe ixiltzea".

c) **Zientzia munduari dagokio.** Egia. Proposizio enpiriko edo zientifikoak gertakarietara zuzentzen diren geziak bezalakoak dira. Wittgensteinek *Tractatus* lanean dioen moduan: "mundua gertakarien osotasuna da", eta proposizio zientifiko orok gertakari bat deskribatzen du. Erabateko paralelismoa dago haien artean: Isoformismoa. Gertakariak eta gertakari horiek deskribatzen dituzten proposizioek forma (morphé) berbera (isos) dute.

d) **Etika subjektuari dagokio.** Egia. Esan berri den moduan, etika balioaren egoitza da, eta balioa subjektuari dagokio.

Etikaren esparrua argudioekin defendatzen ez den errealitate bat da; jarrera-adibideak emanez defendatzen da:

"Etika erakutsi egiten da, ez da frogatzen".

Wittgensteinek "Etikari buruzko konferentzia" lanean dioen moduan: Etika gizakiaren bizipen sakon bat da, inoiz lotsagarri utzi behar ez duguna.

PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO ERLAZIOA

GALDERA	EZAGUTZA ADIERAZLEA
1	2.2, 2.3
2	2.6
3	5.1
4	6.5
5	7.4
6	8.4
7	9.7
8	10.7